

→ **Laburrak****Zentsura At-ek Pussy Rioti egin dio aitortpena**

MUSIKA » Pussy Riot punk-rock talde feministaren aurkako kondena «adierazpen askatasunaren kontrako beste kolpe garrantz bat» dela iritzita, Zentsura At musika jaialdiak aitortpen publikoa egin dio. Talde horretako hiru emakume «bandalismoa» egotzita atxilotu zituzten, bat-bateko kontzertu bat emateagatik Moskuko Kristo Salbatzailearen katedralaren baimenik gabe.

Nerea Berrotaran eta Ane Galardi, kantu txapeldun

MUSIKA » Igandean jokatu zen Gipuzkoako XVI. kantu txapelketa Donostiako Antzoki Zaharrean. Ane Galardi eta Nerea Berrotaran (Hernani / Urnieta) gailendu ziren Mikel Markezen *Hiri hartan izan zen kantuarekin*. Eneritz Aulestia eta Uhats taldearentzat izan zen bigarren saria (*Begirada urruntzean* kantuarekin), eta Josu Zubiarrentzat hirugarrena (*Ilargi betea* abestiarekin).

'Barrura begiratzeko leihoak' hiriburuetan

ZINEMA » Bost zinemagilek egindako *Barrura begiratzeko leihoak* filma Donostia, Gasteiz eta Iruñeko areto komertzial-tara iritsiko da asteburuon. Ostegunean Iruñeko Golem zinematan egongo da ikusgai. Gasteizen eta Donostian, berriz, ostiraletik hasita astebate egongo da karteldegian, azaroaren 23tik 29ra. Donostian Trueba zinematan ikusi ahal izango da eta Gasteizen Florida zinema-aretoan.

Ikusle pare bat**Kritika**

Antzerkia
'Publikoari gorroto'

Egilea: Xabier Mendiguren.
Zuzendaria: Manex Fuchs.
Antzeleak: Ander Lipus, Miren Tirapu, Iñaki Ziarrusta. **Lekua:** Donostiako Gazteszena aretoa.
Eguna: Azaroak 17.

Agus Perez

Ikusle pare bat besterik ez dira etorri gaurko emanaldira, baina beraiekin eta aktore bakar batekin nahikoa da antzerkiaren magia gauzatzeko. Horraino *Publikoari gorroto*-ren oinarria. Gazteszenan, ordea, ia goraino bete dira besaulki lerroak, eta fikziozko ikusle haiek antzelearen parte bilakatu dira, ezinbestean.

Xabier Mendigurenek duela hogeita bost urte idatzitako obrak antzerkiaren gaineko hainbat kontu aztertzen ditu, maisuki aztertu ere emanaldian ezinbestekoaren arabera, eta haietan funtsezkoena da ikuslearen eta aktorearen rolen analisia eta antzerkiak gizartean duen zerregina. Izan ere, testua agertu zen garaian eztabaida nagusietako bat zen nola apurtu zitekeen alde bien arteko harresi ikusezina, eta horren harira dator esandako ikusle biak agertokira ekarri eta emanaldiaren parte bihurtu izana.

Hortik aurrera, eta lehenagotik ere bai, antzerkiari buruzko gogoeta interesgarri asko plaza-rtu dira, arte zahar honen balio sozial zein antropologikoan sakonduz, munduko zenbait dantza, erritu eta antzeppen mota konparatuz eta muturreko kontzeptuak elkartzeko balioa azpimarratuz.

Hala ere, nire susmoa da jatorrizko testuan gehiegizko pisua hartzen zuela diskurtso teorikoa, eta horrexegatik uste dut meritu handikoa izan dela Manex Fuchs eta talde osoaren lana, irudi plastiko askorekin eta ekin-tza fisiko aberasgarriekin hornitu baitituzte eszena gaineko berba-ldi mamitsuak, Luhusoko faktorian hain ondo menperatzen duten lengoia metaforikoaren bidez. Horretan, jakina, esangura handikoa izan da eremu eszenikoaren planteamendua —bonbilla zuriz egindako zirkulu itxia, antzoki zahar bateko besaulkia, misterioaren gordelekua den oihal gorria, manikiaren esangura enigmatikoa...—, are gehiago kontuan izanda Josep Duhauren argi-diseinu apal eta horrexegatik miresgarria.

Eta azkenik, aktoreen lana nabarmendu behar dugu: Ander Lipus-ek bere kameleoi dohain guztiak baliatu ditu—orain Tom Waits orain Juan Junda, orain Manex Domintxine orain psikopata ilustratua—, halako moldez non bazirudien hainbat pertsonaia diferentek esaten zutela berrez bakarra den testua. Iñaki Ziarrustak eta Miren Tirapuk, aldiz, ez dute ia testurik eduki, baina kontrapuntu bikaina eratu dute Lipusen ahalmenaren aurrean beren presentzia soil eta keinu neurtekin. Izan ere, beraiek izan dira benetako ikusleen eta eszenaren arteko lotura, eta bien rolei esker sakondu du proposamenak giza harremanen azterketan eta gizakien manipulazioaren gaian.

Gaurkotze ezinezkoa**Kritika**

Antzerkia
'Hamlet'

Zuzendaria: Will Keen.
Lekua: Bilboko Arriaga antzokia.
Eguna: Azaroak 18.

Agus Perez

Aitortu beharra dut, lagunok: honezkerok makina bat aldiz ikusi dut *Hamlet*, eta seguruenik horregatik ez dit berebiziko zirrara eragin beste behin ikusteak, are gutxiago antzokiko sarreran ikusi dudanean emanaldia hiru ordukoa izango zela. Baina, tira!, irakurleek ez dute neurte aienen berri zertan jasan eta, gainera, Teatro Español delakoaren ekoizpen hau beste batzuk baino askoz hobea izan da, arro barrokoaren iraupena gorabehera.

Antzeppen indarra muturre-raino nabarmentzearen, ia hutsik egon da Will Keen taula zuzendari britainiarrak aukeratu duen eremu eszenikoa, eta hustasun horretan argiek eta taula gaineko mugimenduek ezarri dituzte koadro eta eszenen arteko al-daketak. Pertsonaien banaketari begira, Alberto San Juanen esku geratu da Hamleten rola, haren ahalmen ukazina oinarritzat hartuta, eta Keen bera izan da Hamleten osaba intzestuzale zantarra, herri hartako erregearen figura bere doinu anglosaxoi bereziarekin kutsatuz. Bestetik, aipatzeko modukoa da Gorka Otxoa eta Antonio Gilen lana,

kontrapuntu bikaina eman diete-lako obrako protagonistei beren esku egon diren pertsonaia sekundario guztietan.

Hala eta guztiz ere, eta zuzendaritza lanaren maila berean, Maria Fernandez Ache-ren gaztelaniazko itzulpena eta antzerki-rako bertsioa nabarmendu behar ditugu—zuzendaritza Keenekin konpartitu du—, oso kutsu berezia eman diolako testuari, Shakespearearen maila goreneko hizkera poetikoa agerraraziz eta noizbehinkako umore ukitu gaurkotuak fintasun handiz tar-tekatuz. Keen, aldiz, harrapatua geratu da berak baino lehenago beste askok irentsi duten amu berean, uste izan duelako oraingo gorbatzak eta jakak erabiliz eta soinu-eremuari giro kaletarra emanaz—irriti bidezko elkarrizketak, aireportuetako hotsak eta oharrak, helikopteroen zalaparta...—gaurkotatuna hartuko zuela, magikoki, garai bateko testuak.

Ez da hala izan, ordea. Laertes, Polonio eta enparauen izenak entzutearekin bakarrik, gitariko edonor konturartzen da testu klasiko baten aurrean gaudela, eta emanaldiaren hasieratik uler-tzen dugu boterea kontrolatzeko borrokkak askoz bide gupidagabe eta ilunagoetatik doazela gaurko munduan. Horren guztiaren ondorioz, askoz emankorragoa izango litzateke pertsonaia eta ekin-tza beren jatorrizko garaian kokatzea eta testuaren benetako indarrean sinestea, etengabeko gaurkotze ezinezkoetan ibili beharrenean.

ioskoa harpidedunentzat **sarrerak** **berria** k gonbidatzen zaitu **berria**

'Emak Bakia Baita' filma saritu dute Kanadan

Montrealgo RIDM Dokumental jaialdian jaso du saria Oscar Alegria iruindarraren lehen film luzeak

Iñigo Astiz Iruñea

Estreinatuta zutenetik, jaialdi askotan izan da Oscar Alegria zinemagile iruindarraren *Emak Bakia Baita* filma. Man Ray artistak Bidarten (Lapurdi) bere pelikuletari bat grabatzeko erabilitako etxearen bilaketa kontatzen du lanak, eta kritika onak jaso, eta

publikoaren harrera ona izan zitu-ten, besteak beste, Donostiako Zinemaldian. Orain heldu zaio lehen saria. Epaimahaiaren aipamen berezia jaso du Montrealgo RIDM Dokumental jaialdian (Kanada).

120 film ziren lehen, eta Alegraren lanaren «ausardia» nabarmendu du epaimahaiak. «Oso trama aberats eta malgua sortzen du pelikulak, eta, horri esker, batu egiten dira egilearen begirada poetikoa eta mundu materiala».

Bartzelonako L'Alternativa jaialdian izango da filma hil honen bukaerari, eta Iruñeko Ikus-puntu jaialdian otsailean.

SU TXIKITAN		PUBLIKOARI GORROTO	
Glu Glu Produktzioak	Huts Teatroa		
			

Sarrerak eskuratzeko **www.berria.info**

Edo deitu harpidetza sailera, **azaroaren 20an, asteartea.** (Deitzeko ordutegia: 09:30-11:00. Telefona: 943-30 43 45)

Jasotako dei guztien artean zozketa egingo dugu. Saridunen izenak **azaroaren 21ean** argitaratuko ditugu.

Aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**

BERRIA Komunitateko kideek doan* duze KULTURTICK bazkide txartela. Eskatu www.kulturtick.com helbidean.

tick

*Lehenengo urtean.